# IRALE 2012-13 ONLINE MATRIKULA NOLA

1.- Irakasle.net-en sartu. Bertan zaudela, saio hasi. Hots, erabiltzaile izena eta pasahitza idatzi.

Erabiltzaile-izena edota pasahitza ahaztu badituzu, irakurri eranskina




2.- "Irakaslegunea"ren barnean zaudela, klik egin "IRALE ikastaroak 2012-13. Hurrengo orrian, klik egin lotura honetan "*Iralen parte hartzeko eskabidea*




3.- Patxadaz bete.

Bidea errazteko hainbat argibide:

3.1.- Klik egin hemen. Datu Babeserako araudia onartzeko



3.2.- Ikastaroa aukeratu ahal izateko, ireki dagokion erlaitza (Udakoa, Orduz kanpokoa edo ordu barnekoa)




3.3.- Ikastaroa aukeratzeko "Alta" sakatu bere lerroan
Oharra: ikastaro gehiago ikusteko, klik egin hemen




| Ikastaroa | Ikastaro mota | |
|---|---|---|
| F100 | Terminologia teknikoa (alfabetatze teknikoa) giza eta gizarte-zientzien alorrean. | Alta |
| F200 | Terminologia teknikoa (alfabetatze teknikoa) zientzia-tekniken alorrean. | Alta |
| H100 | Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna, hitzez eta idatziz. | Alta |
| H200 | Goi-mailako hizkuntza-gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila). | Alta |
| H300 | Itzulpen-tekniken ezagutza teorikoa eta gaitasun praktikoa. | Alta |
| H401 | Mintzamena, oro har. | Alta |
| H402 | Lagunarteko hizkera. | Alta |
| H403 | Jendaurreko hizkera jasoa. | Alta |
| H404 | Euskal literatura. | Alta |
| H405 | Ipuingintza. Kontalaritza. | Alta |

3.4.- matrikula berresteko BAI sakatu



## ERANSKINA: ERABILTZAILE-IZENA EDO PASAHITZA GOGORATZEN EZ BADUZU, ZER EGIN?

***Irakaslegunea**ra nola sartu*

Hezkuntza Saileko Pertsonaleko errejistroan dagoen EAEko irakasle oro ***Irakaslegunea**n* sar liteke. Horra iristeko, sartu helbide honetara: www.irakasle.net.

***Irakaslegunea**ra* sartzeko bide konkretua honako hau da:

a) sartu zure NANa (zenbakia gehi letra) *erabiltzaile*aren gelaxkan;

b) sartu zure *pasahitza* hala dagokion lekuan.

Inoiz ***Irakaslegunea**n* egon ez bazara, edota zure pasahitza gogoan ez baduzu, pasahitz berria lortu edo lehengoa berreskuratu egin dezakezu. Ondoko azalpenetan zehazten dizkizugu eman beharreko pausoak.




Sakatu zirkuluaz inguratutako lotura.

Lotura hori sakatutakoan ondoko pantaila agertuko da:




Hona bost pausoak:

**1. eremua** -> Erabiltzaileak bere datu pertsonalak egiaztatzeko baimena eman behar du. Hori egiten ez badu, ezin du aurrera jarraitu.

**2. eremua** -> Sartu zure NAN zenbakia, letra eta guzti.

**3. eremua** -> Sartu zure NANaren iraungitze-data.

**4. eremua** -> Nola jaso nahi duzu pasahitza: sms edo email bidez?

**5. eremua** -> Segurtasun-kodean ikusten dituzun letrak eta zenbakiak sartu.

Hori guztia egindakoan, sakatu **"Datuak bidali"** dioen lekuan. Datuok egiaztatu egingo ditu sistemak eta erabiltzailearen pasahitz berria sortuko du. Esandako bidetik helaraziko zaizu.

Kadukaturik sortuko da pasahitz hori. Egin behar duzun lehenengo lana, pasahitz hori aldatzea da.